PROGRAMA
EUSKERA

# APIRILA MAIATZA EKAINA 2023



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

Azaleko irudia: Estudio Gheada. *El Mejor de los Mundos (EMDLM)*

#ikus-entzunezkoa #solasaldia

# P. Staff

## *The Foundation*

Proiekzioa eta, ondoren, solasaldia Aimar Arriolarekin, Ikertzaile AZ-Kidea

*The Foundation* (2015) filma Los Angeleseko (AEB) Tom of Finland Fundazioaren ingurukoa da —XX. mendeko artista erotiko eta gay ikonoaren artxiboaren egoitza— eta hartaz arduratzen diren pertsonen komunitate baten ingurukoa. Ez da Tom of Finland-i "buruzko" film bat; horren ordez, leku horretan tarte bat pasatzeko esperientzia bideratzen du, galderak egiteko gorputzari, artxiboari eta belaunaldien arteko transmisioari buruz. Filma anbibalentziarekin lan egitearen emaitza ere bada; hau da, irudikatzen zaituzten eta, aldi berean, ez zaituzten irudi, esperientzia eta oroitzapenekin inplikatzearen emaitza.

Ondoren solasaldia izango duen proiekzio-saio honetan, anbibalentzia hori bikoiztu egiten da, filma orain berriz aztertzeko esperientzian.

Jarduera *Forma desira* (2020-2023) programaren barruan dago, Aimar Arriola komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garatzen duen programazio publiko eta ikerketa pertsonalean.



*The Foundation* (2015), filmaren fotograma

**APIRILAK 18, ASTEARTEA**

18:30

Bastida Aretoa

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

**P. STAFF**

(Bognor Regis, Ingalaterra, 1987) Los Angelesen eta Londresen bizi, eta lan egiten du. Bere azken banakako erakusketen artean, honako hauek daude: Espai 13, Fundació Miró, Bartzelona (laster, 2023); *Love Life II*, Commonwealth and Council, Los Angeles (2022); *Love Life*, Galerie Sultana, Paris (2022); *Pure Means*, Frieze Film, 2022; *Recent Poems*, yaby, Madril (2021). P Staffek *The Milk of Dreams* erakusketan parte hartu zuen, Veneziako Nazioarteko Bienalaren 59. edizioan (2022).

deseo de FORMA desira